

EUSKAL - INDUSTRIALIZATZEAREN ETORKIZUN ILLUNA

Iru mailla edo aldi ikusi ehi dituzte jakintsuek industrializatzearen bidean. Ba dira, bai laugarren bat, irudimenean beintzat, sumatu dutenak ere.

Lehenengoa: Esku-lan gutxi espezializatutakoa, indar-lan astekoa, aurrerapen urrikoa, lan-tresna eskas eta merkekoa duzu. Oihala eta oinetakogintzan diardutenak eta josteko makinak eta txirringak egiten dituzten lantegiak, esate baterako.

Bigarrena: Industri pixua azaltzen asten da. Siderurgi lantoki aundiak sortzen. Ehunka eta milaka langilerentzat lana dute. Esku-lan adierituki espezializazio apur bat eskatzen dute... aurredepak gutxiokoa industria... burni-urturak eta gaitzairu-lanak, adibidez. Langileek, berriz, sindikatu aundietan elkartzen asten dira beren eskubideak babestearren.

Irugarrena: Lan-eraketa oso aurreratu eskatzen duena. Elektronika eta petrokimia-lantegi berriak sortzen dira. Jende argia, jakintsua, ikasia eskatzen du. Goi-mailakoa ikasketak, ikastetxe nagusiak, sumate eta billakazte lanak behar ditu.

Laugarrena: Oraindik jaino gabea. Amets utsal. Baña gizona osatzeko eta bere atsedendaldia gehitzeko eta ohegortzeko bakarrik egingo litzake lan. Gizonaren beharrei erantzuteko bakarrik.

Iru pauso oiek eman dituzte erri aurreratuek beren industrializatze-bidan. Eta gu ere pozik egon gindezkeen beti toki gutxiatan aurrera emango balira. Orix gertatu zaio Euskalerriri ere zoritxarrez.

Ain ondo, egoki eta indartsu lehenengotik bigarreneira iragan zen Eukalria itota gelditu da. Eta bigarrenean gelditzeak eriotza dakar nahi ta nahi ez.

Zer gertatu da? Gure industriak ez du Erri aurreratuetako industriarekin burrukarik izan. Ez dute Erri oiek beren jeneroa emen sarzkeko egokierarik izan. Ez dute, beraz, muga barruetako azoketan norik merkeago eta norik oheak sarzkeko lehiarik izan. Eta kanpora jo dutenean ere ez dira Erri aurreratuetako azoketara joan, Erri atzeratuetara baizik.

Orregatik ez dute aurreratu beharrenean, ikasi eta yayotu beharrenean premiarik sumatu. Irabazpide onak, errazak eta eroeak eduki dituzte. Esku-lanera jendea biltatu ezker ia guztia egin zegoen. Eta zoritxarrez lanik gabeko jende asko eduki inguruan.

Eta onela lo-zorroan, nagiturik eta zaharturik zegoen garaian industri sortze beti ekin dio Estadua emendik kanpora. Eta jakina oientzat gordetzen ditu diru laguntzarik aundienak. Oietara doaz emengo Aurrezki Kutxetako etekinak ere. Urrizten, soilzeten eta bakantzen doaz, beraz, emengo ondasunak. Gure industria emendik kanpoko industri oien morrontzan jarri da. Oientzat egiten du lan.

Diru-iturriak nahiko agorturik eta goi-mailakoa ikasketak egiteko bide aundirik gabe arkituraren salba ditekero oraindik gure ekonomia, salba ditekero gure industrializazioa.

Ez du euskalduna oraindik ikaratu ez lanak eta ez nekeak. Eta ba daki etorkizun oibean itxaropenean guztia arrixkatzen. Esna gaitzen, bada, eta elkar.

KOSMOARI BURUZKO AZKEN BEBIAK

Irakurleak aisa uler dezakean beala jakintsuek ez bestek ezagu dituzkete gaur zehetasunetan (eta berek ere, dakiten neurrian eta sailean bakarrik) Zientziaren azken pausuak. Artikulu honetan, beraz (gainerakoetan bezala, bestalde) irakurle amorratu batek zenbait kaseta eta liburua irakurri, ikusi edo sumatu uste dituen problemak azalduko ditu gaingiroki. Ene asmoa ez bait da astean behin soluzio berezi bana ematea, problema bana irakurleei apaliki presentatzea baizik. Egari buruz, hitz batez, gehiegitan argitallaz ezin izanik, eragile eta akulizatzaile nahi nuke izan berederen.

Hau helburu, azkeneko asteotan irakurri ditudan berri batzuek hunkiturik, azaldu egingo ditut.

Joan den Irailaren 20an, lehen-dabizkorik, berri jakingarri hau eman zuten kasetek: NASAko jakintsuek sei azido aminatu desberdin aurkitu dituzte meteoritoetan. Meteorito hauek, argitu dute, asteroidetako puskak dira; alegia, Marte-ren eta Jupiter-en jirabide edo orbiten artean higitzen diren planeta-hondakinen harri-pusk. Eguzkiaren sistema, hortaz, geroen sistema alegia, baina Lurbi-ratik at zeharo (gugandik gertuenik 270 milioi kilometro) azido aminatuz ba daude. Hots, jakina denez, azido aminatu hauek dira proteinen osagai nagusia; eta proteinak, berebat, «biziazen oihala», bizizgai nagusia.

Ez da idorokunde hau bakarrik etorri. 1960-z gerotzik, zitosina aurkitu izan da ikatzezko «xondrinetan» (alegia, «xondrita» deritzan meteorito mota batetan); eta zitosina hori, ADN-azidoaren parte izanik, guztiz dago biziarri lotuta.

Eguzki-ondoko gure sistema, beraz, gero eta segurago da Zientziaren aldetik, kimikari dagokionez, Biziazen «oihala» edo oinarri diren gaiak nun-nahi sortzen direla.

Artizarra-ren eta Marte-ren misilozko ikustamen ukarora egina izan ondoren, ba dirudi bizidunik gaur Lurbitan ez bestetan dagoena. Baina besteetan kimika-oinarria ez da falta; eta giro-oinarria Lurrean gertatu den bezala gertatu gero, bizidunen sorrerak normala dirudi. Aspaldiko denboretan Marte-n bizia izan zela defenditzen dutenak ez dira gaur urri; eta Phobos-en bitxi-

keriak... antzina jaurtitako teknika-satelite bat delakoa azaldu nahi luketanak ere ez...

Nolanahi ere, gauza bat da segurua: Eguzki-ondoko sistema, bizia sor dedin behar diren kimika-oinarriak ez direla falta. Beste modu batetara esateko: Lurbi-ratik at ere, Bizia sor daiteke: giroaren eta ingurumarien araberak, atzo, gaur eta bihar ager daiteke; eta beroien araberak ere, suntsi.

Gure sistematik irtenez gero, berri (hau da: Eguzki ondoko planeta-sistematik urruntzean), baina beti ere gure Galaxiaren barruan, bide beretik dotoz idorokundeak. 1968-z gerotzik, molekula desberdin asko aurkitu da izar-arteoko hodeietan. Amoniakoa aurkitu da, esate baterako (lau atomo), formaldehidoa, ziano-azetilenoa, eta beste. Aurten siliziozko oxido bat aurkitu da. Eta, hitz batez, baita zazpi atomo dituzten molekula atxeman dira dagoeneko izar-arteoko hodei eskerga horietan.

Gure Galaxiaren barruan, beraz, baina Eguzkiaren sistematik kanpo, aurrera doaz Zientziaren ekarriak Biziazen oinarri diren molekula agertzearren aldetik, eta Stanley Miller-ek laboratorioriko frogabidez erakutsi zuenaren araberak.

Beste galaxietan, hirugarreneko-rik, joera berberetik doaz idorokundeak. Aurtengo Uztailen kaseten irakurri dugunez, Weliachev astronomilariak OH molekula aurkitu du bi galaxietan: N 8 delakoa eta NGC-253 delakoa. Gugandik hamar miloi argi-urtetara, beraz, frogatuta dago gaur gure arteko molekula ezagun hori ba da goena (ehun trilioi kilometrotara). Ba zegoena, beraz, hobeki esateko, orain dela hamar miloi urtez gerotzik, argia handik irtzen zenean, Lurrean oraindik ez gizona ez gizon-aurrekoak zirelarik.

Kosmosa, hortaz, bat da izaeraz kimikaren aldetik. Eta, hau dela bide Bizia nun-nahi gertutua dela ukatzeko arrazoin sendorik ez da argiri. Lehenago ere esandakoa berri-ruz: «ez gaude Kosmosen bakarrik». Kosmosaren batasun funtsezkoa gero eta zindoago agertzen bait da.

Gero eta segurago da, beraz, era berean, Lurrean gainaldean obratu den eboluzioa, beste lekutan eta mendetan gertatu dakekela. Gero eta segurago eboluzio

hau bai atzeratutago bai aurreratutago dagoen munduak ba diratekeala. Ez gaude bakarrik.

Ez gara beraz Kosmosaren erdia ez ardatza. Antropo-zentrismoa erazteko garaia da, gure Lurbia eta gure mendea baita denon gaitzari diren uste harroputza baztertzeko. Freud-en hitzez esateko, gizaian luzaz nagusi izan den erlijioak «une déformation délicate de la réalité» izan du zimatarri. Izan gaitzen apal eta egia! batera. Gizona ez da Kosmosaren zilborra; eta gure gizaardi dagozkin urteak edo mendeak ez dira ezer berezirik Kosmo eskergaren kondaira luzean. Utz ditugun alde batera pilomoiemoak oro.

Astronomilari famatu batek ematen duen irudia, neutro egingo dut. Eman dezagun billarretako bola bat dela Eguzkia: 7 cm. diametrokoa. Gure Lurbia jostorratz edo iskillin-buru bat izango litzake (0,5 mm.) eta 7,60 metrotra jiratuko gertutua, beste billar-bola bat izango litzake... 2.000 kilometrotara jarri bezarrezkoa: Kopenhaguen-en eman dezagun! Tartean hutsa. Beste bola bat (beste izar bat) hamar kilometrotara jarri beharko litzake, eta abar; eta horrela ehun-mila milioi bola «plate» bat osatuz. Plater honen diametroak 600.000 kilometro izango litzake! Horra hor gure Galaxiaren mini-maketa txiki-txiki bat. Honetatik miloika kilometrotara, ehunka miloika kilometrotara, beste galaxiak, billarretako bola-modo espiralak edo borobilak aldizka, ehunka, milaka, hutsunean sakabaturik eta galdiruk...

Are gehiago. Asma dezagun orain hori guztia, aski huts ez balitz bezala, areago hustutzen ari, dena nun-nahi hedatzen eta bakantzen ari, galaxiak galaxietatik urruntzen ari (ihes-nahiak harparaturik itxuraz), dena aspaldian lehurtu izan balitz bezala zabaltzen ari, mundu osoa lurrintzeko eta espazioan gelsaltzeko eta funditzeko abiadan abiataturik bait legoan... Eta hori genduko gu segundu batez bestesten dugun zeru isilaren irudia.

Hori ginate, gu, jostorratz-buru batetan burrukan eta, Epikitotok bezala esateko, «geure gorpu astuna arima ahulak ezin arastaturik» («Tu n'est qu'une âme chétive qui soulève un cadavre» zion jopu argitsu gogor harek). Nork ez du sendituko Ezerezen zorabioa? Nork ukatuko du, bestalde, zorabio horren ikutua, funtsa eta egia? Ukazten dute halere horiek; eta kezka hauei farre egin uste dietel!

Baina etsipen betean gautzalarik, Freud-en esakuntza garrantza litzatu zaigularik, eta Ezerezen zorabioak arras harturik gautzalarik, beste burutazio bat datorikgu burura. Bizia ez da-izan batere «probalea». Alegia gaurko Biologiak erakasten duenez, molekula organikoek «informazio» haundia dutela; eta gertatu behar ez ziren izakiak gertatu direla hain zuten. Guk gogotik saiaturik ere ez dugu deus haundirik sortzen; baina Zoriak eta Halabehar hutsak izakirik zailenak sortzen dituzte. Mirari hutsa da molekula eraldioak agertzea; eta mirakulua hutsa ere bizidunik batere zorotza.

Hots, aipatutako berriok erakusten dutenez, probable eta gertagarri edo gertakizun ez zen HURRAXE da... normala eta gertatual! Eta hau nun-nahi gainera.

Ez dezagun ahanz, bestalde, Carbono-atomoaren lau elektroli famatu horiek direla materia organikoaren kaka: Carbono-rik gabe ez da garbi ulertzen Bizia nola sor zitekean. Hots, Carbonoa ez da-izan ezer apartarik Mendeleiev-en lauki ezagunean: «hamabigarrena soilki. Berriz ere: «beste bat».

Bitarren galaxiak elkargandita eta gugandik urruntzen ari eginahale-tan. 3 X 147 delakoa, gaur gaurko txapelduna, 165.000 kilometro/segundo-tako abiaila darama. Zerman, hobe, orain dela bost mila miloi urte jaurti bait zuen guk gaur ikusten dugun argi-errainu hori. Urruneko!

Txiripila-oro eta ezin luzeago batez dakigu hau guztia. Kosmosa itsua izan bait zitekan osoki, eta kontzientzia-gabatasun guzizkoan lehef, eta gero ilunbetean gesal eta hil bait zitekan. Aski zitekan, eman dezagun, Carbono-atomoak dituen gaitasunak ez izatea...

Zer da hau guztia? Zein da zorakeria haundiagoa? Gizonaren beraren arazoa eta patua zeharo alde batetara utzirik ere, zeln da erogo: gertatu den guztia Zori hutsaren ondorio dela sinesten duena, ala Zori huts hori sinesten ez duena?

LANTEGITIK

LANGILE BATZORDEAK FRANTZIAN

Lanen bat idazterakoan irakurlearen gogoan, gaiaren garrantzia eta gaurkotasuna gogoan hartu behar du idazleak. Langileentzat garrantzidun gairik bada enpresa barruan dadukan eginbidez mintzatzeko dagokigu, zuzendartizan parte zenbaiteraino har dezakeen aztertea, ondorenean pausoak ongi zuzentzea... Asko idatzi da gai honetaz, eta, oraingoz, iturria agortuko denik ez dugu uste.

Europar zehar oso era ezberdinean jokatu izan da, langileriak Frantzia eta Yugoslabian ez du era berdinean erantzun, ez du bide berdinek aukeratu. Horregatik han eta hemen, sozialista eta kapitalista sistemapean langileriak zelan lan egin duen ikusiz gero, gure lana hobeto mugatu ahal izango dugu. Frantziar langileria jarraiodugu diogu gaurko saio honetan.

Frantziar aspaldian ekin zioten lantegi barruko eskuartzearen aldeko burrukarri. Amiena-gog Agirian, 1906 garrenean, sindikatoaren egitekoa burrukabide ezetik, lanbide ere gertatuko dela, airtortzen du. Gerotzik, eztabaidarik sortu da frantziar langileria artean. Xede eta jomuga berdina izan da, lantegi barruan zeregine garrantzik ba da goela oharatu dira. Hori eskuartze-

ko bidea aukeratzeak ematen die buruko mina eta kezka, elkar ezina.

Bigarren Gerrate Nagusian, Frantzia askatasun bidetik abiatua den garaian, Abendu 1944 garrenean, langile batzordeak sortarazteko eta prestatzeko lege bereziaren egitama gertuzterakoan hara zer dioten: «Lantegi giro eta antolaketa frantziar langileriak beregain hartzea nahi dugu, egunetik egunera eskuartze haundiagoa izatea».

De Gaulle militarren agintepaen, 1945 garren urtean, lantegi barruan langile batzordeak osatzea ontzat ematen da. Frantziak gerratean lortu duen askatasuna, gizarte giroan ere bereganatu nahi duela dirudi...

Legepean batzordeak osatzen dira, langileen ordezkariak osatua, nagusiaren bitarteko batek bertan parte hartzen duelarik. Baina, delako batzorde hauek ez dute indarrik, ez aginterik ezta erabakiak hartzeko kemenik ere. Diru arazotan ez dute ezereen eskuartzerik.

Langile batzordeak, bada, zertarako? Frantziar kapitalismoa nagusi denez gero, ez du ezereen aldaketa sakonik onartuko, jomaga, diru,

lantegi antolaketa, produzio arazotan nehorik eskuartzeak ez dio onik eginen.

Lantegi batzordeak bere iritzia eman lezake, baina garrantzidunetaz ez zaio iritzirik eskatzen. Irabazien kontu garbirik ez du jakituen, jomaga konturik aipatzeko egokierarik ez du izango. Gehienez, paternalismoz, beterik, seguridade, sendagile, aseguero, mutualismo, bankantzetako etxeen antolaketa eta abar bakarrik zuzentzen ditu. Lana, dakurgunez, ugaria, neketsua, burrokraziari itsatsia egoera aldaeraziko ez duena. Izan ere, jokoak garbi dago, kristau izeneko sindikatoak 1950 garrenean dion bezala: «Batzordeak, beste zereginetan lanpeturik, ez du egiazko egitekorik betetzen...». Gerotzik gauzak lehenean daudela esan ditek. 1967 garrengo Abuztuan emandako legeak ez du ezertxoere aldatzen.

Kapitala da nagusien, eta nahiz eta direkzio mailan noiz behinka bilerak egin, ez da bertan aparteko gairik erabiltzen. Benetan interesgarri diren arazoak beste era batera konpontzen dira, langileak erabat baztertzeko alegia.

Zuzentasunak eskuartze gehiago

rik eskatzen duela ez dago dudarik. Langileria gorabide eta osabidean, horrelako batzordeetan parte hartzea onuragarri den ala ez, besterik da. Erantzuna zerorrek eman zenezake.

Mikel Ugaldel



ARGIA

Zuzendakaria:
MIREN JONE AZURUA
ARISTOZUEGA

Nafarroa-Kantabri eta Aragoiko Kapuzinuen argitaratua (Kale Nagusia, 56-1. Burielade Pamplona).

Donostia: Okenda, 22
Tel. 42.06.66

ARPIDE SARIA:
Barruan 250 pezeta
Korreo batasunetako errietan 300 pezeta
Atzerriestakeko errietan 320 pezeta
Aldez Aurrez galdetu

Selmetan (ala bekoftza) 6 pezeta